

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ogasunak 2012ko Errenta aitortpeneko 186.923 proposamen jarri ditu Interneten

PFEZaren aitortpena hilaren 10etik egin ahal izango da Interneten, eta Ogasuneko bulegoetan nahiz erakunde laguntzaileetan, apirilaren 19tik ekainaren 25a bitarte

Jueves, 04 de abril de 2013

Nafarroako Zerga Ogasunak 2012ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 186.923 aitortpen-proposamen jarri ditu gaur [Interneten](#) 280.354 zergaduni dagozkienak, eta zergadun horiek kontsultatu eta berraztertu ahal izango dituzte. Jada egindako aitortpen horien % 68 "itzuli beharrekoak" dira eta, hortaz, Ogasunak hilaren 10etik aurrera guztira 79.754.310 euro sartuko du zergadunen kontuetan, lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak [2012ko Errenta Kanpainaren](#) aurkezpenean azaldu duenez.



2012ko Errenta Kanpainaren kartela.

Proposamenak etxeetara paperean hilaren 10ean bidaltzen (edo gako batena bertara online bidez heltzeko) hasiko dira, eta egun hori baino lehen bere aitortpen-proposamena berraztertzeko web-aplikazioan sartu ez diren pertsonentzat bakarrik egingo da edo, hori egin arren, inprimatu ez dutenak. Neurri horrekin Nafarroako Ogasunak sistemaren eraginkortasuna hobetu nahi du, bere segurtasuna handitu, ingurumeneko eragina minimizatu eta bidalketa horretatik sortutako kostuak murriztu.

Bulego birtuala hilaren 10etik eta presentzialak, 19tik aurrera

Aitortpen-proposamena egin ez zaien zergadunek edo egin zaiena aldatzea nahi dutenek `bulego birtual` baten bidez egiteko aukera dute Interneten edo ohiko bulego presentzialetan.

`Bulego birtuala`-k aitortpen-proposamen aurkezteko edo aldatzeko epea zabalduko du apirilaren 10ean eta sei bulego presentzialetan (Iruña, Barañain, Burlata, Lizarra, Tafalla eta Tuteran daudenak) herritarrei hilaren 19an arreta ematen hasiko dira; horretarako, aurrez hitzordua eskatu beharko da hilaren 17tik aurrera (www.navarra.es webgunean eta 948 505 505, 948 505 506 telefono-zenbakietan). Hilaren 19an ere aitortpenak

aurkezteko aldia hasiko da erakunde laguntzaileen bitartez, arretako 1.000 postu baino gehiago prestatu dituztenak. Aitorpena `ordaintzea´ egokitzen zaien herritarrek ordaintzeko beren konpromisoak bi epetan bete ahalko dituzte: uztailaren 2an eta azaroaren 20an. 2012ko Errenta Kanpaina ekainaren 25ean itxiko da.

Diru-sarrerak baino itzultze gehiago

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak azaldu duenez, 2012ko Errenta Kanpainak 101 milioi euroko saldo negatiboa aurreikusten du; izan ere, 236 milioi itzultzea eta 135 biltzea aurreikusten da "ordaindu beharreko" aitorpenen bidez.

Era horretan, 2012ko Errenta Kanpainaren diru-bilketa 2011ko Kanpainako aurreikuspenekin alderatuz 7 miliotan igoko dela kalkulatzen da; orduan aurreikusitako saldoa -108 milioi eurokoa izan zen. Horren arrazoia da, itzultzeak % 11,32 igo den arren aurreko urtearekiko, diru-sarrerak ere % 29,8 igotzea aurreikusten dela.

Legegintzako berrikuntza nagusiak

Errenta-aitorpena aurkezteko betebeharra dute 2012an 11.250 euro gordin edo gehiagoko lan-etekinak izan zituzten zergadunak; higigarrien kapitalaren etekinak eta ondarearen handitzeak, 1.600 euro gordin edo gehiago atxikitzeari lotuta daudenak; beste errenta batzuk jasotzen dituzten zergadun guztiak (enpresariak eta profesionalak, alokatzailleak...) eta edozein kasutan baterako aitorpena hautatzen bada.

Haiei guztiei 2012. urteari dagokion araudia aplikatuko zaie, eta berrikuntzen artean nabarmentzen dira: ondarea handitzearen salbuespenei lotutako zenbait alderdi; atxikipena handitzea higigarrien kapitalaren eta antzekoen etekinengatik; likidagarria den oinarriari eta aurrezteko likidagarria den oinarri bereziari aplika daitekeen karga osagarri bat ezartzea; eta kenkariak handitzea kirol-, kultura- eta gizarte-ondaretik sortutako publizitate-gastuengatik.

Gainera, Ondarearen Zergaren aldaketa berria ere aplikatuko da; haren bidez, ohiko etxebizitzarengatik salbuespena 250.000 eurora murrizten da, Zerga Oinarriari aplika daitekeen gutxieneko salbuespena 311.023,76 eurora jaisten da eta ondasun edo eskubideen balioaren zenbatekoa murrizten da, haietatik abiatuz nahitaezkoa dena aitorpena aurkeztea; hala, 1.000.000 euro baino gehiagoko balioa izatera helduko da.

2011ko Errenta Kanpaina

Nafarroako Zerga Ogasunak egiten dituen txosten soziometrikoek erakusten dutenez, zerga-zamaren zati handiena oinarri likidagarri handienak dituzten zergadunek jasaten dituzte. Hala, 2011ko datuak erreferentziatzat hartzen badira, 45.000 euro baino gehiagoko oinarri likidagarria duten errentek (aurkeztutako aitorpenen % 9) kuota likidoaren % 48,6 jasaten dute. Bestalde, 18.000 euro baino gutxiagoko oinarri likidagarria duten errentek (aitorpenen % 60 dira) kuota likido guztiaren % 10,11 jasaten dute.